

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako toki-erakundeetan emakume politikariek duten presentzia aztertuko dute Foro batean

Datorren asteartean hasiko da alkatesen eta zinegotzien parte-hartzea zailtzen duten eragozpenak aztertzeko sesio batekin

Ostirala, 2019.eko urtarrilak 11

Toki-erakundeen kudeaketa politikoan parte-hartzea eta emakumeen presentzia sustatzeko helburuarekin, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak eta Herritarren Arreta eta Parte Hartze Zerbitzuak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren babesarekin, Foro bat antolatu dute toki entitatetan emakume politikarien parte hartzea aztertzeko.



Foroaren aurkezpen kartela.

Foroa astearte honetan hasiko da Baluartean osoko bilkura batekin, toki-mailan jarduera politikoan arituko diren emakume alkate, zinegotzi eta emakumeentzat antolatutako espazioa bezala. Besteak beste, emakumeen lidergoa galarazten duten eragozpenak eta sinesmen mugatzaileak aztertuko dituzte, esfera sozialeko eremu nagusi horretan emakumearen ahalduntzea eta parte-hartze osoa sustatzeko tresnak eskaintzearekin batera.

Bilera 16:30ean hasiko da Baluartean, eta interesatuek bertara joateko izena [esteka honetan](#) eman dezakete. Hasteko, Miren Gutiérrez kazetariak eta Komunikazioaren Zientzietan doktorea denak hitzaldia emango du; Deustuko Unibertsitatean ematen duten “Data análisis, research and Communications” doktorego-programaren zuzendaria ere bada. Hitzaldiaren izenburua ondorengoa da: “Emakumeak politikan. Ikusarazteko erronka”.

Datozen asteetan, bi saio egingo dira Nafarroako eskualde ezberdinetan: Tuteran, urtarrilaren 22an eta otsailaren 19an; Iruñean, urtarrilaren 23an eta otsailaren 20an; eta Garesen, urtarrilaren 24an eta otsailaren 21ean. Topaketa horietan, emakumeek jarduera politikoan aurre egin beharreko eragozpen espezifikoak nahiz irtenbideak jorratuko dira.

Azkenik, martxoaren 15ean, Foroaren beste osoko bilkura bat egingo da Baluartean, eskualdeetako bileretako ondorioak eta emaitzak azaltzeko, sareak sortzeko eta denentzako agenda eratzeko asmoarekin.

Nafarroako Toki Erakundeetako emakume politikarien inguruko Foroaren abiapuntua izango dira erreferentziazko bi esparrutan egindako lanak: batetik, Nafarroan Herritarren Parte-hartzea bultzatzeko 2017-2019 Plana, emakumearen inguruan tokiko esperientziak jorratzea jasotzen duena. Eta, bestetik, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, NABIk, egindako lana, 2016. urtean Nafarroako emakumeek politika publikoetan zuten eragina aztertu baitzuen; era berean, ondorio nagusi bezala ikusi zuen lan egin beharra zegoela emakumeei boterea emateko, politika publikoetan erabateko parte-hartzea eta eragina izan zezaten.

Lan horretatik, emakumeek Nafarroako Foru Komunitateko politika publikoetan parte-hartze soziala eta politikoa izatearen inguruko [Estrategia](#) 2018-2020 sortu zen, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Kontseilariak azaroaren 8an emandako 55/2018 Foru Aginduaren bidez onartua, emakume politikarientzat ahalduzko prozesu espezifikoko abian jartzea aurreikusten duena.